

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1904/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 12koa, 2007-2013 epealdirako “Europa herritarrekin” programa ezartzekoa, europar herritartasun aktiboa sustatzeko.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Decisión nº 1904/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, por la que se establece el programa “Europa con los ciudadanos” para el período 2007-2013 a fin de promover la ciudadanía europea activa*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 378/32 de 27/12/2006)

1904/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko abenduaren 12koa,

2007-2013 epealdirako «Europa herritarrekin» programa ezartzekoa, europar herritartasun aktiboa sustatzeko

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratata, eta, bereziki, horren 151. eta 308. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedurari jarraiki ⁽³⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Tratatuak Batasuneko herritartasuna ezartzen du, eta estatu kide bakoitzeko herritar izaeraren osagarri da. Europaren integrazio-prozesua sendotzeko eta zaintzeko elementu garrantzitsua da.
- (2) Erkidegoak europar izaeraz guztiz jabearazi behar ditu herritarrak, bai eta horrek dakartzan onurez, eskubideez eta betebeharez ere; horiek, halaber, subsidiariotasunarekiko errespetua kontuan hartuta eta kohesioa lortze aldera sustatu behar dira.
- (3) Bereziki garrantzitsua da Europaren etorkizunari buruzko hausnarketa sakon baten testuinguruan jabearaztea europar izaeraz Europar Batasuneko herritarrak; hausnarketa hori 2005eko ekainaren 16an eta

¹ C 28 EO, 2006.2.3koa, 29. or.

² C 115 EO, 2006.5.16koa, 81. or.

³ Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko apirilaren 5koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006ko irailaren 25koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko urriaren 25koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea). Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 11koa.

17an Bruselan egindako Kontseilu Europarrean jarri zen abian.

Hala, «Europa herritarrekin» programak eremu bereko beste ekimen batzuen osagarri izan behar du, baina ez ditu horiek bikoiztu behar.

- (4) Herritarrek Europaren integrazioa guztiz babes dezaten, garrantzi handiagoa eman behar zaie balio, historia eta kultura komunari; izan ere, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunari⁽⁴⁾ jarraiki —2000ko abenduaren 7an aldarrikatua—, askatasun eta demokrazia printzipioetan, giza eskubideekiko eta kultura-aniztasunarekiko errespetuan, tolerantzian eta elkartasunean oinarritutako gizarte baten kide izateko funtsezko elementuak dira.
- (5) Herritartasun aktiboa sustatzea oinarrizkoa da, arrazismoaren, xenofobiaren eta tolerantzia ezaren aurka borroka sendoagoa izan dadin eta, horrez gain, kohesioa eta demokraziaren garapena sendoagoa izan dadin.
- (6) EBren informazio- eta komunikazio-estrategiaren testuinguruan, programaren bidez bultzatuko diren jardueren berri behar bezala emango dela eta horiek izango duten eraginaren berri ere emango dela bermatu behar da.
- (7) Herritarrek Europa hobeto ezagutu dezaten eta, hala, gero eta hurbilago duten Europa eraikitzen gogotsu parte har dezaten, nahitaezkoa da estatuetakoa herritar guztiengana eta herrialde parte-hartzaileetako legezko egoiliarrengana iristea, nazioz gairako elkartrukerako jardueretan eta lankidetzako jardueretan parte har dezaten; izan ere, hartara, ideal europar komunak dituen herritar-talde baten partaide-sentimendua bultzatuko da.
- (8) Europako Parlamentuak, 1988an emandako ebazpen batez bidez, egokitzen hartu zuen ahalegin berezia egitea estatu kideetako

⁴ EO C 364, 200.12.18koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- herritarren arteko harremanak sendotze aldera. Horrez gain, adierazi zuen funtsezkoa dela Europar Batasunak berariazko laguntza ematea estatu kideetako udalerrien arteko senidetze-jarduerak bultzatzeko eta horiek komenigarriak direla.
- (9) Kontseilu Europarrak behin baino gehiagotan aitortu du beharrezkoa dela Europar Batasuna eta haren instituzioak ezagutaraztea estatu kideetako herritarren artean. Batasuneko erakundeei eskatu die aldiro-aldiro elkarrizketa irekia eta gardena izateko gizarte zibil antolatuekin eta elkarrizketa horiek sustatzeko; hartara, herritarrek bizitza publikoan eta erabakiak hartzen parte har dezaten eta Europako herritarrentzat komunak diren funtsezko balioak nabarmen daitezen.
- (10) Europar herritartasun aktiboa (herritarren parte hartzea) ⁽¹⁾ sustatze aldera erkidegoan ekintza-programa bat ezartzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko 2004/100/EE Erabakiaren bidez, Kontseiluak ekintza-programa bat zehaztu zuen eta berretsi egin zuen nahitaezkoa dela gizarte zibileko elkarrekin eta udalerriekin etengabeko elkarrizketa sustatzea eta, halaber, herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzea.
- (11) Herritarren nazioz gaindiko eta sektorearteko proiektuak tresna garrantzitsuak dira herritarrengana iristeko eta izaera europarra, integrazio politiko europarra, gizarteratzea eta elkar ulertzea sustatzeko.
- (12) Europako, estatuetako, eskualdeetako eta tokian tokiko gizarte zibileko erakundeak elementu garrantzitsuak dira herritarren partaidetza gizartean aktiboa izan dadin, eta bizitza publikoko alderdi guztiak suspertzen laguntzen dute. Horretaz gain, Europaren eta haren herritarren arteko bitartekari-lanak ere egiten dituzte. Horrenbestez, erakunde horien nazioz gaindiko lankidetzak sustatu eta bultzatu behar da.
- (13) Politika publikoari buruzko ikerketa-erakunde europarrek Europari buruzko eztabaida aberasten lagun dezaketen ideiak eta hausnarketa-gaiak eman ditzakete. Hortaz, Europako erakundeen eta herritarren arteko lotura ezartzeko, komenigarria da, halaber, nortasun eta herritartasun europarra eratzeko konpromisoa dutela erakusten duten jarduerak bultzatzea eta, hala, informazio-eta elkartruke-sareak sustatzeko irizpide gardeneko prozedurak ezartzea.
- (14) 2004ko apirilaren 21eko 792/2004/EE Erabakiak kulturaren alorrean European aritzen diren erakunde aktiboak bultzatzeko ekintza-programa ⁽²⁾ ezarri zuen, deportazioekin lotura duten tokiak eta artxibategi nagusiak kontserbatzeko eta horiek oroimenean gordetzeko. Beraz, komenigarria da erabaki horren esparruan Europar Batasunak abian jarritako ekintzak ere egiten jarraitzea, Bigarren Mundu Gerrak eragin zuenaz eta ekarri zituen zoritxarrez jabetzeko eta gertatutakoa gogorarazteko munduan barrena, iragana gainditzeko eta etorkizuna eraikitzeko.
- (15) 2000ko abenduaren 7tik 9ra bitartean kirolari buruz Nizan izandako Kontseilu Europarrak egindako adierazpenean zera esaten zen: «... kirolaren esparruan eskumen zuzenik ez badu ere, Europako Erkidegoaren Tratatuaren hainbat xedapeni jarraiki gauzatzen diren jardueretan, kontuan izan behar dira kirolak bere baitan hartzen dituen funtzio sozialak, hezitzaileak eta kulturalak».
- (16) Komenigarria da arreta berezia jartzea nazioz gaindiko proiektuetan eta jardueretan, estatu kideetako gizarte zibileko herritarrek eta erakundeak modu orekatuan integratu beharko baitituzte.
- (17) Horiekin sinatutako akordioaren arabera, herrialde atxikigaiak eta EEEari buruzko Akordioa sinatu zuten EFTAko herrialdeek Europako programetan parte hartu ahal izango dute.
- (18) 2003ko ekainaren 19an eta 20an Salonikan izandako Kontseilu Europarrean onartu zen «Salonikako programa Mendebaldeko Balkanetarako: Europako integrazioaren aurrera egitea»; horren bidez, mendebaldeko Balkanetako herrialdeei gonbita egiten zitzaizen Erkidegoko programetan eta agentzietan parte hartzera; hortaz, mendebaldeko Balkanetako herrialdeak ere onartu egin behar dira Europako programetako parte-hartzaile potentzial gisa.
- (19) Programa aldi-aldi berrikusiko da, eta ebaluazio independentea egingo zaio, Batzordearekin eta estatu kideekin batera; horrela, behar adina aldiz egokituko baitira neurriak, behar bezala aplikatuko badira.
- (20) Programa berrikusteko eta ebaluatzeko erabiliko diren prozeduretan, helburuak eta adierazleak berariazkoak izango dira, neurgarriak, lortzeko modukoak, egokiak eta bidezkoak.

¹ EO L 30, 2004.2.4koa, 6.or.

² EO L 138, 2004.4.30ekoa, 40.or.

- (21) Sinpletasun eta koherentzia printzipioak — aurrekontuetarako tresnak hautatzerakoan—, Batzordeak aplikazio- eta kudeaketa-erantzukizun zuzena zenbatetan duen eta baliabideen zenbatekoaren eta horien erabilerarekin zerikusia duen administrazio-kargen arteko heinekotasun egokia kontuan hartuta aplikatu behar dira Erregelamendu hauek: Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 1605/2002 Erregelamendua (EE, Euratom), Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-erregelamendua ⁽¹⁾ onartzekoa (aurrerantzean, «finantza-erregelamendua»), eta Batzordearen 2002ko azaroaren 19ko 2342/2002 Erregelamendua (EE, Euratom), Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamendua (EE, Euratom) garatzeko arauari buruzkoa eta Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-erregelamendua ⁽²⁾ onartzekoa, eta Europako finantza-interesak zaintzea helburu duenak.
- (22) Horrez gain, komenigarria da neurriak hartzea irregulartasunak eta iruzurrak gerta ez daitezten, eta galdutako funtsak berreskuratzeko edo egoki ordaindutakoak edo behar ez bezala erabilitakoak berreskuratzeko.
- (23) Finantza-kudeaketa behar bezala egiteko printzipioaren arabera, programa aplikatzea errazagoa izan daiteke finantzazioa ordainketa bakarrean eginez gero, programan parte hartuko duten parte-hartzaileei dagokienez, zein programa antolatzeo estatuek ezarritako egituretarako ematen den laguntzari dagokionez.
- (24) Programak iraun bitarteko epealdi guztirako, Erabaki honek ezarritako finantza-esparrua Aurrekontu Agintaritzarako lehentasunezko erreferentzia izango da 2006ko maiatzaren 17ko instituzio arteko Akordioaren 37. paragrafoari jarraiki —Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen artean sinatutakoa da, aurrekontuei buruzko diziplinari eta behar bezalako finantza-kudeaketari buruzkoa— ⁽³⁾.
- (25) Erabaki honetan ezarritako helburuak estatu kideek beren kabuz behar bezala lortu ezin dituztenez, eta programak ezarritako ekintzak

eta neurriak nazioz gaidikoak eta alde askotakoak direnez eta Erkidegoaren bidez hobeto lortzeko modukoak direnez, Europar Batasunak neurriak hartu ahal izango ditu, Tratatuaren 5. artikuluan ezarritako subsidiariorotasun printzipioari jarraiki. Aurreko artikuluan aipatutako heinekotasun-printzipioari jarraiki, Erabaki honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak baino ez ditu hartzen.

- (26) Erabaki honetan ezarritakoa betearazteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko, kontuan hartuko da Batzordeari emandako betearazpen-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakian ezarritakoa ⁽⁴⁾.
- (27) 2004/100/EE Erabakiaren arabera, neurri iragankorrak ezarriko dira 2006ko abenduaren 31 baino lehen abian jarritako ekintzak berrikusteko.

ERABAKI HAU ONARTU DU:

1. artikulua

Programaren helburua eta aplikazio-eremua

1. Erabaki honen bidez «Europa herritarrekin» izeneko programa ezartzen da, 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitarteko epealdirako; aurrerantzean «programa» deituko diogu.
2. Helburu orokor hauek lortzen lagunduko du programak:
 - a) herritarrei aukera ematea Europa gero eta hurbilago bat eraikitzen elkarrekin aritzeko eta parte hartzeko; Europa demokratikoa, mundura irekia, batua eta kultura-aniztasunak aberastua, eta, hala, Europar Batasuneko herritartasuna garatzea;
 - b) nortasun europarra garatzea, balio, historia eta kultura komunak oinarri hartuta;
 - c) Europar Batasuneko partaide direlako sentimendua sustatzea herritarren artean;
 - d) Europako herritarren artean tolerantzia hobetzea eta elkar hobeto ulertzea, kultura-eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen eta sustatzen dela, eta kultura arteko elkarrizketa bultzatzen dela.

¹ EO L 248, 2002.9.16koa, 1.or.

² EO L 357, 2002.12.31koa, 1.or. Azken buruan, Batzordearen 1248/2006 (EE, Euratom) Erregelamenduak aldatu zuen Erregelamendua. (EO L 227, 2006.8.19koa, 3. or.)

³ EO C 139, 2006.6.14koa, 1. or.

⁴ EO L 184, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen Erabakia (EO L 200, 2006.7.22koa, 11. or.).

2. artikulua

Programaren berariazko helburuak

Tratatuaren oinarritzko helburuei jarraiki, nazioz gaindi aplikatzekoak izango diren berariazko helburu hauek ditu programak:

- a) Europa guztiko udalerrietako herritarrak biltzea, esperientziak, iritziak eta balioak elkarri jakinarazteko eta elkar trukatzeko, historia ikasbide izateko eta etorkizuna eraikitzeke;
- b) herritartasunarekin eta demokraziarekin, guztiek dituzten balioekin eta historia eta kultura komunarekin zerikusia duten ekintzak, eztabaida eta hausnarketa sustatzea, Europako gizarte zibileko erakundeen arteko lankidetzaren bidez;
- c) Europa herritarrengana gehiago hurbiltzea, balio eta lorpen europarrak sustatuz eta iraganeko memoria gogoan izanda;
- d) herrialde parte-hartzaile guztietako gizarte zibileko herritarren eta erakundeen arteko elkarrekintza sustatzea eta, bereziki, kultura arteko elkarriketa bultzatzea eta Europako aniztasuna eta batasuna nabarmentzea eta, horrezaz gain, 2004ko apirilaren 30ean Europar Batasuna osatzen zuten estatu kideetako herritarren eta harrezkero Europari atxikitako estatu kideetako herritarren arteko harremana estuagoa izan dadin abian jartzen diren jarduerari arreta berezia jartzea.

3. artikulua

Ekintzak

1. Programan ezarritako helburuak lortzeko, ahalegina egingo da eranskinaren I. zatian zehatzago agertzen diren ekintza hauek bultzatzeko:

- a) «Europarekiko herritar aktiboak», eta horrek zera esan nahi du:
 - hirien arteko senidetzeak;
 - herritarren proiektuak eta horiei laguntzeko neurriak.
- b) «Gizarte zibil aktiboak Europan», eta horrek zera esan nahi du:
 - egitura-laguntza politika publikoari buruzko ikerketarako Europako erakundeek (hausnarketarako foroak);
 - egitura-laguntza Europan aritzen diren

gizarte zibileko erakundeek;

- gizarte zibileko erakundeek abian jarritako proiektuak bultzatzea.
- c) «Elkar hartuta Europarekin», eta horrek zera esan nahi du:
 - oihartzun handiko ekitaldiak; esate baterako, oroipen-ospakizunak, sariak, arte-ekitaldiak, Europa mailako konferentziak, etab.;
 - azterlanak, inkestak eta iritzi-zundaketak;
 - informazioa lortzeko eta hori jakitera emateko tresnak.
 - d) «Europari buruzko memoria historiko aktiboak», eta horrek zera esan nahi du:
 - deportazioekin eta biktima izandako oroipenarekin zerikusia duten toki garrantzitsuak eta artxibategiak gordetzea.

2. Ekintza guztiek izango dute xede estatu kide guztietako gizarte zibileko herritarrak eta erakundeak modu orekatuan integratzea, 2. artikulua d) idatz-zatian ezarritako berariazko helburuari jarraiki.

4. artikulua

Europak neurriak ezartzeko moduak

1. Erkidegoak ezarritako neurriak modalitate hauetakoak izan daitezke: diru-laguntzak edo kontratu publikoak.

2. Europak diru-laguntzak emateko, besteak beste, berariazko modu hauek ditu: diru-laguntza operatiboak, ekintza jakin baterako diru-laguntza, beka eta sariak.

3. Zerbitzuak eskuratzeko izango dira kontratu publikoak; esate baterako, ekitaldiak, azterlanak eta ikerketak antolatzeke; informazioa lortzeko eta jakitera emateko tresnak eta jarraipena egiteko eta ebaluatzeke tresnak.

4. Europako diru-laguntzaren bat jasotzeko, onuradunek eranskinaren II. zatian ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

5. artikulua

Programan parte hartzeko

Jarraian aipatzen diren herrialde guztiek parte har dezakete programan; aurrerantzean, «herrialde

partaideak» deituko diegu:

- a) estatu kideak;
 - b) EEEari buruzko Akordioa sinatu zuten EFTAko herrialdeak, Akordioaren xedapenei jarraiki;
 - c) aurretxikitzeke estrategiaren baten onuradun diren herrialde atxikigaiak, Europako programetan parte hartzeke herrialde horietan egindako akordio-markoetan ezarritako oinarritzko printzipioei eta baldintza orokorrei jarraiki;
 - d) Mendebaldeko Balkanetako herrialdeak, Europako programetan parte hartzeke herrialde horietan ezartzen diren printzipio orokorrei buruzko akordio-markoen araberrako xedapenei jarraiki.
- b) programaren ekintzen arteko oreka orokorra;
 - c) programa-kontrolerako eta -ebaluaziorako modalitateak.
 - d) Europak diru-laguntza operatibo guztien inguruan ematen duen finantza-laguntza (kopurua, iraupena, banaketa eta onuradunak), 1. ekintzaren esparruko hirien arteko senidetzerako urte anitzeko hitzarmenak eta 3. ekintzaren esparruko oihartzun handiko ekitaldiak.

6. artikulua

Programarako sarbidea

Herritartasun europarra aktiboki sustatzen eta interesa duten guztientzat dago zabalik programa eta, batik bat, tokian tokiko agintari eta erakundeentzat, politika publikoari buruzko ikerketarako erakunde europarrentzat (hausnarketarako foroak), hiritar-taldeentzat eta gizarte zibileko beste erakunde batzuentzat.

7. artikulua

Lankidetzaz nazioarteko erakundeekin

Europar herritartasun aktiboaren eremuko jarduera bateratuak eta berritzaileak har ditzake bere baitan programak, dagozkion nazioarteko erakundeekin batera abian jarrita, Europako Kontseiluarekin eta UNESCOrekin, esaterako; horretarako, ekarpen bateratuak eta finantza-erregelamenduan ezarritakoa eta norberaren instituzioko edo erakunde arauak hartuko dira kontuan.

8. artikulua

Aplikazio-neurriak

1. Batzordeak programa gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, eranskineko xedapenei jarraiki.
2. Bederatzigarren artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurarekin bat etorritz hartuko ditu neurri hauek:
 - a) programa gauzatzeko xedapenak, urteko lan-plana barne; hautaketa-irizpideak eta hautaketa-prozedurak;

3. Programan ezarritakoa gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako neurri guztiak 9. artikuluko 3. paragrafoan adierazten den prozeduraren araberranartuko dira.

4. Bigarren paragrafoan adierazitako prozeduraren barnean, Batzordeak eranskineko ekintza bakoitzeko jarraibideak egin ditzake, europar herritartasun aktiboaren eremuan lehentasunezko aldaketaren bat ematen bada, programa hartara egokitu ahal izateko.

9. artikulua

Komitea

1. Batzordeak Komite baten laguntza izango du.
2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa beteta. 1999/468/EE Erabakiaren 4. artikuluko 3. paragrafoan jasotako epea bi hilabetekoa izango da.
3. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 3. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa beteta.
4. Komiteak bere barne araudia onartuko du.

10. artikulua

Erkidegoaren eta Europar Batasunaren beste tresna batzuekiko koherentzia

1. Programaren eta Erkidegoko beste ekintza-eremu batzuetako tresnen artean koherentzia eta horiek osagarri direla zaintzeko ardura izango du Batzordeak, batik bat, alor hauetan: hezkuntza, lanbide heziketa, kultura, gaztedia, kirola, ingurumena, ikus-entzunezkoen sektorea eta komunikabideak, oinarritzko eskubideak eta askatasunak, gizarteratzea, genero-berdintasuna, diskriminazio-, arrazismo- eta xenofobia-mota ororen aurkako borroka, ikerketa zientifikoa, informazioaren gizartea eta Europako kanpo-ekintza —bereziki, auzoko herrialdeekiko

Europako politika—.

2. Erkidegoaren edo Europar Batasunaren beste tresna batzuek eta programak baliabide berberak erabil ditzakete, programaren eta beste tresna horien helburuak betetzen dituzten ekintzak gauzatzeko.

11. artikulua

Finantza-zuzkidura

1. Lehenengo. artikuluan aipatzen den epealdirako, programa gauzatzeko finantza-zuzkidura 215 milioi eurokoa izango da.

2. Aurrekontu-agintaritzak finantza-esparruaren mugen barruan baimenduko ditu urteko kredituak.

12. artikulua

Finantza-xedapenak

1. Finantza-laguntza diru-laguntzen bidez emango zaie pertsona juridikoei. Ekintza-motaren eta lortu nahi den helburuaren arabera, pertsona fisikoei ere jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak.

2. Batzordeak sariak eman ahal dizkie pertsona fisikoei edo juridikoei, programaren esparruan gauzatutako ekintzengatik edo proiektuengatik.

3. 2342/2002 Erregelamenduaren 181. artikulua arabera (EE, Euratom) eta ekintza-motaren arabera, oroharreko prezioaren zenbatekoa ordaintzeko baimena edo kostu unitariokako tarifak aplikatzeko baimena eman daiteke.

4. Finantziazioaren zati bat gauzatan izan daiteke.

5. Batzordeak, onuradunen eta ekintza-moten ezaugarrien arabera, erabaki ahal izango du onuradunak salbuestea proposatutako ekintza edo laneko programa gauzatzeko eskatzen diren gaitasunak eta lanbide-prestakuntzak egiaztatzen.

6. Diru-laguntzak txikiak badira, onuradunak eman beharreko informazio-kopurua txikiagoa izan daiteke.

7. Zenbait kasu jakinetan, diru-laguntza txikia eman denean, esaterako, ez da beharrezkoa izango onuradunak egiaztatzea finantza-ahalmena duela aurreikusitako lan-programa edo proiektua gauzatzeko.

8. Europarako interes orokorrekoa den helbururen bat duten erakundeentzako programaren esparruan ematen diren diru-laguntza operatiboak, 2342/2002 Erregelamenduaren 162. artikuluan (EE, Euratom) adierazitako definizioari jarraiki, ez dira automatikoki degresiboak izango, berritu

egiten badira.

13. artikulua

Erkidegoaren finantza-interesen babes

1. Erabaki honen arabera finantzatutako ekintzak gauzaten direnean, Erkidegoaren finantza-interesak babesten direla bermatuko du Batzordeak eta, horretarako, iruzurraren, ustelkeriaren eta legearen aurkako beste edozein jardueraren aurkako prebentziozko neurriak hartuko ditu, kontrol eraginkorrak egingo ditu eta behar ez bezala ordaindutako kopuruak berreskuratuko ditu. Horrez gain, irregulartasunak hautematen badira, isunak ezarriko ditu, eraginkorrak, proportzionalak eta disuaziozkoak; horiek guztiak, arau hauetan ezarritakoari jarraiki: Kontseiluaren 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 Erregelamendua (EE, Euratom), Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzkoa⁽¹⁾; Kontseiluaren 1996ko azaroaren 11ko 2185/96 Erregelamendua (EE, Euratom), iruzurren eta irregulartasunen aurka Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteko Batzordeak *in situ* egiten dituen kontrolei eta azterketei buruzkoa⁽²⁾; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko maiatzaren 25eko 1073/1999 Erregelamendua (EE), Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak egiten dituen ikerketei buruzkoa⁽³⁾.

2. Erkidegoko ekintza horiek programaren esparruan finantzatzen direnez, 2988/95 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 1. artikulua 2. paragrafoan adierazten den irregulartasun-kontzeptuak zera esan nahi du: Erkidegoaren zuzenbideko xedapenen baten arau-hauste oro edo kontratuko betebeharren bat ez betetzea, betiere, ekintzaren baten ondorioz zein ekonomia-eragileren batek bidegabeko gasturen bat egiteagatik Batasuneko aurrekontu orokorrari edo Erkidegoek kudeatzen dituzten aurrekontuei kaltea eragiten edo eragin bazeaie.

3. Ekintzaren bat gauzatzeko emandako finantza-laguntza murriztu, bertan behera utzi edo berreskuratuko du Batzordeak irregulartasunak hautematen baditu, bai eta Erabaki honen xedapenak edo finantza-laguntza emateko erabaki indibiduala, kontratua edo hitzarmena betetzen ez badira, edo Batzordearen onespenera gabe proiektuarekin bat ez datozen edo baldintzekin bat ez datozen aldaketak egiten badira ekintzan.

4. Epeak betetzen ez badira edo, ekintzaren egoeragatik, emandako diru-laguntzaren zati bat bakarrik justifika badaiteke, epe jakin batean

¹ EO L 312, 1995.12.23koa, 1.or.

² EO L 292, 1996.11.15ekoa, 2. or.

³ EO L 136, 1999.5.31koa, 1.or.

oharrak aurkezteko eskatuko dio Batzordeak onuradunari. Horrek egiten duen justifikazioa baliozkoa ez bada, gainerako finantza-laguntza bertan behera utzi ahal izango du Batzordeak eta ordura arte ordaindutako kopuruak bueltatzeko eska diezaioke.

5. Bidegabe ordaindutako diru-kopuru oro Batzordeari itzuli beharko zaio. Finantza-erregelamenduan ezarritako baldintzen arabera behar baino beranduago itzultzen diren diru-kopuruek interesak sortuko dituzte.

14. artikulua

Jarraipena eta ebaluazioa

1. Programaren jarraipena aldi-aldi egiten dela zainduko du Batzordeak. Jarraipen- eta ebaluazio-prozeduraren emaitzak kontuan hartuko dira programa gauzatzekoan. Jarraipena egiteak berekin dakar, bereziki, 3. paragrafoa a) eta c) idatz-zatietan adierazten diren txostenak egitea.

Berariazko helburuak berrikusi ahal izango dira, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Batzordeak bermatuko du programa aldira ebaluatzen dela eta horren berri aldi-aldi ematen zaiola Europako Parlamentuari. Ebaluazioa kanpoko eta independentea izango da.

3. Batzordeak honako hauek aurkeztuko dizkio Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari:

- a) programa erdia gauzatu osteko ebaluazio-txostena, lortutako emaitzei eta programa gauzatzearekin zerikusia duten alderdi kualitatiboak eta kuantitatiboak buruzkoa, 2010eko abenduaren 31 baino lehen;
- b) programaren jarraipenari buruzko komunikatua, 2011ko abenduaren 31 baino lehen;
- c) ebaluazioa, programa gauzatu ondoren, 2015eko abenduaren 31 baino lehen.

15. artikulua

Xedapen iragankorra

2006ko abenduaren 31 baino lehen hasitako ekintzak 2004/100/EE Erabakiak arautuko ditu amaitu arte, bertan ezarritakoaren arabera.

Finantza-erregelamenduaren 18. artikulua ezarritakoari jarraiki, programaren esku jarriko dira 2004/100/EE Erabakiaren arabera oker ordaindutako diru-kopuruen ordainketatik datozen

diru-sarrera esleituei dagozkien kredituak.

16. artikulua

Indarrean jartzea

Erabaki hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Estrasburgon eginga, 2006ko abenduaren 12an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean

Presidentea

Mauri PEKKARINEN